

2019.10.02  
18:00-20:00



# Giza liburutegia Biblioteca humana

Sorkuntza... askatasunean?  
Creación... ¿en libertad?

Ubik, Tabakalerako sorkuntza liburutegia  
Ubik, Biblioteca de creación de Tabakalera

TABAKALERA



KULTURA  
GARAIKIDEAREN  
NAZIOARTEKO  
ZENTROA

CENTRO  
INTERNACIONAL  
DE CULTURA  
CONTEMPORÁNEA

Donostia/San Sebastián



# Giza liburutegia

## *Biblioteca humana*

**G**iza liburutegia Copenhaguen 1993 urtean sortu zen proiektua da. Ezagutza eta esperientzia partekatuen bidez, elkarrizketa eta ezaguera suspertu nahi duen mugimendua da.

Komunikazio beharra gizakia bezain zaharra da. Egungo bide berrien aurrean, proiektu hau pertsonetan eta beraien bizipen, esperientzia eta ezagutzaren bidez sortzen diren harremanetan oinarritzen da.

Elkarrizketa gurutzatuen bidez, giza liburutegiko protagonistek bizi istorio eta interes propioak partekatuko dituzte parte-hartzaileekin, solasaldia eta harremanak sustatuz.

Oraingoan aukeratutako gaia sorkuntza askatasunean izango da, alegia, edozein arloko sortzaileek indarkeriak baldintzatutako testuinguruetan sortzeko izan edo izaten dituzten baldintzen inguruan hitz egingo da: presioak, jazarpenak, zentsurak, autozentsura, bazterketa, beldurrak, kontraesanak...

**L**a Biblioteca humana es un proyecto que se gesta en Copenhague en 1993 como movimiento para incentivar el diálogo y el entendimiento, a través del intercambio de conocimientos y experiencias.

La necesidad de comunicación del ser humano a través de cualquier medio es tan vieja como el mismo ser humano. Frente al protagonismo del uso de nuevos medios de comunicación, este proyecto se centra en las personas y las relaciones que se establecen a través de sus vivencias, experiencia y conocimientos.

El objetivo de la Biblioteca humana es compartir historias de vida, conocimientos, intereses etc. a través de conversaciones cruzadas, para fomentar el diálogo y las relaciones.

En esta ocasión el tema elegido tiene que ver con la libertad creativa y, en concreto, con los límites que los contextos condicionados por el ejercicio de la violencia y sus consecuencias han impuesto o impone a creadores de cualquier ámbito, ya sea en forma de presiones, persecución, censura, autocensura, marginación, miedos, contradicciones..., etc.

Hizkuntza/idioma:  
Euskara & Castellano



# Aizpea

*Goenaga*

**ELKARBIZITZE-  
SORMENA**

**CREACIÓN EN  
CONVIVENCIA**

**G**aztetatik antzerkia, zinea, telebista egiten hasi nintzen: aktore bezala, antzerki idazle eta gidoilari lanetan, baita zuzentzen ere. Eguneroko zalantza askoren erdian, bada ia beti gauza ziurra: sormenak ikustera, ikastera, partekatzerara eta hobetzerara laguntzen gaituela. Emozioen hizkuntza, irudi bati, musika bati, testu bati... edo dena delakoari lotzen zaio mundu zabalago batera eramateko. Abiapuntu horretatik, indarkeria eta tratu txarren inguruko antzezlanak sortu ditut. Ikus entzunekoan, Bernardo Atxagaren Zeru horiek nobelaren zinerako egokitzapena egin eta filma zuzendu nuen. Eta gure inguruko egoerara hurbiltzen saiatzen den antzezlanare ere idatzi dut: Esquinas.

**E**mpecé en el teatro, el cine y la televisión muy joven: como actriz, dramaturga, guionista y, también, como directora. Entre muchas de las dudas cotidianas, creo que a menudo existe una certeza: que la creación artística nos ayuda a observar, a aprender, a compartir y a ser mejores. El lenguaje de las emociones se une con una imagen, una melodía, un texto o con cualquier otro soporte artístico para llevarnos a un mundo más amplio. Y, precisamente, desde ese punto de partida, he creado obras de teatro relacionadas con la violencia y los malos tratos; adapté y dirigí la novela Zeru horiek de Bernardo Atxaga; y he tratado de acercarme a la realidad de nuestro contexto, escribiendo el texto Esquinas.

Hizkuntza/idioma:  
Castellano



# Clemente

*Bernad*

## ZENBAIT ISTORIO KONTATZEKO PREZIOA

## EL PRECIO DE CONTAR ALGUNAS HISTORIAS

**A**rgazkilari eta documental-zinegile bezala lan egiten dut 1986az geroztik, nere inguru kulturalako gai sozial eta politikoei bereziki interesatzen nautelarik. 80. hamarkadan euskal gatazkaren argazki-proiektu luzea hasi nuen, inork begiratzen ez zuena ikusten saiatuz. 2007an, proiektu hartako argazki batzuk Chacun á son goût erakusketan egon ziren Guggenheim Bilbao museoaan ikusgai. Erakusketa haren ondorioz jazarri ninduten eta nere bitzita profesional eta pertsonalak ospea galdu zuen. Duela 5 hilabete Iruñako Monumento de los Caídos-en meza bat grabatzeagatik gartzela urte batera kondenatu ninduten.

**T**rabajo como fotógrafo y cineasta documental desde 1986, con un fuerte interés por las temáticas sociales y políticas dentro de mi entorno cultural más cercano. A mediados de los 80 comencé un largo trabajo fotográfico sobre el conflicto vasco en el que intenté mirar hacia donde nadie quería hacerlo. En 2007 participé con varias de esas fotografías en la exposición Chacun á son goût, en el Museo Guggenheim de Bilbao, por las que fui perseguido y sometido a una sucia campaña de desprestigio profesional y personal. Hace 5 meses fui condenado a un año de cárcel por intentar grabar una misa franquista en el Monumento a los Caídos de Pamplona.

Hizkuntza/idioma:  
Euskara



# Iban

*Zaldúa*

**GEZURRAREN BITARTEZ  
EGIA ZATIREN BAT  
AURKITZEN SAIAZTEA  
DA IDAZTEA**

**INTENTAR ENCONTRAR  
UN TROZO DE VERDAD  
MEDIANTE LA MENTIRA  
ES ESCRIBIR**

**D**onostian jaio nintzen, eta Gasteizen bizi naiz horren aspalditik, ezen donostiarrek ez nautela bertakotzat hartzen (ezta gasteiztarrek gasteiztartzat ere, oraingoz behintzat); une honetan ez naiz inongoa, (eta hori) askotan eroso suertatzen den zerbait da. Historia ekonomikoa irakasten dut eta fikzioa idazten dut: lehenengoak objektibotasunaren aldeko apustu sendoa eskatzen du (asmoz behintzat), eta bigarrenak subjektibotasunaren erakusgarri nagusienetako bat dela esango nuke. Bestalde, euskara da nire sorkuntza hizkuntza nagusia, baina batzuetan gaztelaniaz idazten jarraitzen dut. Batzuetan ez dakit nola eraman neurosi horiek.

**N**ací en Donostia y vivo en Vitoria. Desde hace tanto tiempo que los donostiarras no me toman por local (y por el momento, tampoco la gente de Vitoria me considera vitoriano); en estos momentos no soy considerado de ningún lugar, cosa que a veces me resulta cómoda. Enseño historia económica y escribo ficción: lo primero exige una apuesta firme por la objetividad (esa es la intención, por lo menos), y diría que lo segundo es la prueba máxima de la subjetividad. Por lo demás, el euskara es mi lengua creativa principal, pero continuo escribiendo en castellano. A veces no se cómo llevar esa neurosis.

Hizkuntza/idioma:  
Euskara



# Imanol

*Ubeda*

**HAIEN BIHOTZEN  
TAUPADAK GARA**

**SOMOS LOS LATIDOS DE  
SUS CORAZONES**

**K**azetari ofizioz, kantuegile pasioz. Bietarako joera izan dut gazte-gaztetatik. Irratian, prentsan eta agerkari digital ezberdinetan kolaboratu izan dut. Usurbilgo NOAUA! aldizkariko erredaktorea naiz gaur egun.

Musikari dagokionez, talde ezberdinetako kide izan naiz. 2006an Non dira izeneko diskoa plazaratu genuen Bide Ertzean taldearekin. Lan honek 36ko gerra du ardatz. Memoria berreskuratzeko ahalegina izan zen gurea. Zorionez, ez gara ez bakarrak eta ez lehenak izan.

**P**eriodista de oficio, cantautor de vocación. He tenido esa tendencia desde bien joven. He colaborado en radio, prensa y diferentes publicaciones digitales. En la actualidad soy redactor del diario NOAUA! de Usurbil.

En cuanto a la música, he sido miembro de diferentes grupos. En 2006 publicamos el disco Non dira con Bide Ertzean. Este trabajo tiene como eje la guerra del 36. Nuestra intención fue recuperar la memoria. Por suerte, no hemos sido ni los únicos ni los primeros.

Hizkuntza/idioma:  
Castellano

# Iñaki



*Larrimbe*

**TMEO, EUSKAL MARKA  
DUEN “FAKTORIA”: 32 URTE  
UMORE GRAFIKO AKRATA,  
KRITIKO ETA ASKEA**

LA “FACTORÍA” DE CUÑO  
VASCO TMEO: 32 AÑOS DE  
HUMOR GRÁFICO ÁCRATA,  
CRÍTICO Y LIBRE

**A**rtista, kultur kudeatzaile eta Gasteizeko egunkariko zutabegile lana TMEO umore grafiko eta komiki fanzinearen koordinazioarekin bateratzen dut. Sortzaileetako bat izan nintzen 1987an eta marrazkilari bezala ere ibili nintzen lehen 25 urteetan (“Larri” ezizenarekin). Gaur egun, zuzendaritza batzordearen parte naiz eta lan editoriala nere gain hartzen dut (aldizkariaren maketazioa, komunikazioa, sare sozialak, banaketaren koordinazioa...) TMEOko estruktura batzarkide, eta aldi berean, kaotikoaren barnean.

**C**ompatibilizo mi labor como artista, gestor cultural y columnista en el diario de Vitoria-Gasteiz, con la coordinación desde hace una década del fanzine de humor gráfico y cómic TMEO. En 1987 fui uno de sus cofundadores, colaborando como dibujante (firmando como “Larri”) durante las dos primeras décadas y media. En la actualidad, formo parte de su junta directiva y asumo gran parte del peso de la labor editorial (maquetación de la revista, comunicación, redes sociales, coordinación de la distribución...) dentro de una estructura asamblearia y un tanto caótica como es la del TMEO.



Hizkuntza/idioma:  
Castellano



# Jose

*Ibarrola*

## AIRE ZABALEAN

## A LA INTEMPERIE

---

**1** 955an Bilbon jaio nintzen eta 1972an hartu nuen parte, lehen aldiz, arte talde-erakusketa batean. Ordutik pintura, eskultura, komikia, antzerkia, zinema eta telebistarako eszenografia, zinema eta ilustrazioa uztartuz bizi naiz. Artistaren semea eta artisten aita, diktadura politiko, ortodoxia artistiko eta fundamentalismo kulturalen artean ibili naiz begirada kritikoa agerian izanik.

**N**ací en Bilbao en 1955 y en 1972 participé por primera vez en una exposición colectiva de arte. Desde entonces he vivido compaginando la pintura, la escultura, el cómic, la escenografía para teatro, cine y televisión o la ilustración para diversas publicaciones o medios. Hijo de artista y padre de artistas he transitado entre dictaduras políticas, ortodoxias artísticas y fundamentalismos culturales con la mirada crítica a flor de piel.

Hizkuntza/idioma:  
Euskara & Castellano



# La Basu

*(Elena Caballero)*

**YOGA, VIDA Y FELICIDAD**

RIMAS DE LUCHA  
FEMINISTA

**E**lena Caballero naiz, rap munduan La Basu bezala ezagutua, Euskal Herriko emakume-raparen erreferenteetako bat. 20 urteetako ibilbidea dut musika munduan eta lehen artista izan nintzen euskera hutsean rap diska bat ateratzen; borroka ardatz zuten letra eta erritmoz betea. Eskina Femeninaren arduraduna ere banaiz, hip hop munduan egiten diren emakume lanak hedatzen dituen proiektua. Rap lantegiak bideratzen ditut eta gizonezkoek paper nagusia izan duten mundu honetan erreferente berriak sortzeko hitzaldietan parte hartzen dut.

**S**oy Elena Caballero, más conocida en el mundo del rap como La Basu, uno de los referentes de rap femenino en Euskal Herria. Tengo un recorrido musical de más de 20 años y fui la primera artista en sacar un disco de rap integro en euskera; letras y ritmos llenos de lucha. También soy la responsable de Eskina Femenina, un proyecto donde se difunden trabajos de mujeres en la cultura del hip hop. Imparto talleres de rap y participo en charlas para crear nuevos referentes en un mundo donde los hombres siempre han tenido el papel principal.

Hizkuntza/idioma:  
Castellano



# Luisa

*Etxenike*

**ZER, ZERGATIK, NOLA**

**QUÉ, POR QUÉ, CÓMO**

---

**Z**er? Eleberriak, kontaketak, poesia eta zenbait antzerki-lan idatzi ditut indarkeriaren gaiaren inguruan: bizitza pribatuan egiten den indarkeria baina baita biolentzia terrorista ere. **Zergatik?** Literaturak aurrez aurre begiratu behar du, dagoena argitara eman. Eta Euskal Herrian, biolentziak isilarazi nahi gintuen. Baina literatura ez da isiltzen. Gainera, pertsonak “erantzun eta erreplika arte” itzelak gara. **Nola?** Bat: irakurlea pertsonaien sufrimenduaren ikusle pasiboa ez bilakatzen, hauekin hunkiaraziz baizik. Eta bi: ezohiko aldea ezagutzera emanez, el camino menos transitado de lo ordinario... Irakurlearen aurrean eszenak, pertsonaiak, egoerak sortuz, jaio berriak bezalak, estreinatuta berriak.

**¿**Qué? He escrito novelas, relatos, poesía y varias obras de teatro en las que a menudo he abordado el tema de la violencia: la que se perpetra en la vida privada, pero también la terrorista. **¿Por qué?** La literatura debe mirar de frente, destapar lo que hay. Y en Euskadi la violencia pretendía acallarnos. Pero la literatura no calla. Además, las personas somos un formidable “arte de la contestación y la réplica”. **¿Cómo?** Uno: no convirtiendo nunca al lector en un espectador pasivo del sufrimiento de los personajes, sino provocando que se conmueva con ellos. Y dos: revelando el lado insólito, el camino menos transitado de lo ordinario... Creando escenas, personajes, situaciones que surgen ante el lector, como recién nacidos, recién estrenados.

Hizkuntza/idioma:  
Euskara

# Peio



*Ospital  
(Peio eta Pantxoa)*



## HERRI-ABESLARIA

## EL CANTANTE DEL PUEBLO

**H**erri apalean sortutako eta sustraitutako abeslaria naiz eta herriaren, eta aberkideen sentipen eta bizipenena ere bai. «Herriaren gorazarrea, bihotzeko hizkuntzan kantatua»: 50 urtetako ibilbidea laburturik (bikotean nahiz bakarlari).

Euskal Herriaren oroimen kolektiboari itsatsita daude Peio Ospital eta Pantxoa Carrère lapurtarraren kantuak. 70eko urte zailetan, euskal abertzaleen ahotsa eta bihotza izan ziren: hizkuntza, lurra, herria zein herritarrak maitasun eta errespetuz tratatu zituzten. Hainbat kantu belaunaldiz-belaunaldi zabaldu dira, euskal kantagintzaren klasikoak izateraino. Abesti apal eta hunkigarriak, kantuan aritzeko era partikular bat, sujerikorra, goxoa eta lirikoa.

**S**oy un cantante nacido y arraigado en un pueblo modesto, una persona ligada a los sentimientos y vivencias del mismo y de sus gentes. «Un elogio al pueblo, cantado con el idioma del corazón»: resume una trayectoria de 50 años (tanto en solitario como en duo).

Las canciones de los labortanos Peio Ospital y Pantxoa Carrère están ligadas a la memoria colectiva de Euskal Herria. En los difíciles años 70, fueron la voz y el corazón de los abertzales vascos: trataron con amor y respeto la lengua, la tierra, el pueblo y sus habitantes. Algunas canciones se han transmitido generación tras generación hasta convertirse en clásicos de la canción vasca. Canciones humildes y conmovedoras, una manera particular de cantar, sugerente, dulce y lírica.

Hizkuntza/idioma:  
Castellano & inglés



# Veronica

*Werckmeister*

**HERRITAR  
ELKAR-SORTZEA**

**CO-CREACIÓN  
CIUDADANA**

**E**lkarrekintzan, hartu-emanean eta elkarlanean oinarritutako praktika artistikoa garatzean datza nere lana. Herritar eta artisten artean harremanak sortzea proiektu handien bitartez, non lana eta erantzukizuna partekatzen diren. Ohiko arte girotik at dauden pertsonen espazioak, tresnak eta sortze-metodologiak eskaintzea. Praktika artistikoaren bitartez gizarte zein norbanakoen garapena katalizatze modu bat, gure nortasun historiko, memoria, ingurumen eta baloreei buruz ikertzeko eta elkarriketan aritzeko aukera emanez.

**M**i trabajo consiste en desarrollar una práctica artística basada en la interacción, el intercambio y la colaboración con intencionalidad. Crear vínculos entre la ciudadanía y los artistas a través de proyectos ambiciosos, donde el trabajo y la responsabilidad se comparten. Ofrecer espacios, herramientas y metodologías creativas a personas fuera de los círculos tradicionales del arte. Una forma más de catalizar el desarrollo social e individual a través de la práctica artística, dando así la oportunidad de investigar y dialogar sobre nuestra identidad histórica, nuestra memoria, nuestro entorno y nuestros valores.

**Tabakalera eta Bakeolak antolatutako ekintza.** Actividad organizada por Tabakalera y Bakeola.

**TABAKALERA**



**Bizikidetz, Gatazka eta Giza Eskubideak**  
Convivencia, Conflicto y Derechos Humanos



